

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiaren urtemugan jarduera ezberdinak bultzatuko ditu

Gaur goizean, bi erakundeek lankidetzarako hitzarmena berritu dute

Osteguna, 2018.eko ekainak 21

Ana Ollo Hualde Herritar eta Erakundeen arteko Harremanetarako kontseilariak eta Andrés Urrutia Euskaltzaindiako lehendakariak gaur goizean lankidetzarako hitzarmen berria sinatu dute. Hitzarmen horrek foru-gobernuaren 169.000 euroko ekarpena biltzen du.



Ollo kontseilaria eta Mikel Arregi Euskaltzaindiako ordezkariekin

Horren bidez, Gobernuak —Euskarabidearen bidez— Euskaltzaindiarekin duen lankidetzari jarraipena emango dio, proiektu kultural ezberdinak aurrera eramanez.

Hitzarmen horretan aurrera eramango diren jarduera ezberdinak jasotzen dira, Euskaltzaindia sortu zeneko urtemuga dela bide. Eta horiek amaituzat emateko, hizkuntza-eskubideei buruzko jardunaldiak emango dira, urtarrilaren 17an eta 18an, Iruñean.

Euskararen lexikoari, toponimiari eta onomastikari buruzko ikerketak

Hain zuzen, diru-laguntza horrekin abian diren lau proiektu finantzatu dira:

1. Euskal Corpus Onomastikoa (ECO), 66.192,61 euroko aurrekontuarekin.

2. Onomastikari eta Toponimiari buruzko lanak, 17.362,02 euroko aurrekontuarekin.

3. “La Vasconia peninsular en las fuentes árabes” (711-929 urteak) liburuaren edizioa, 10.000 euroko aurrekontuarekin.

4. Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa, 55.445,37 euroko



Ollo kontseilariak eta Euskaltzaindiako lehendakariak lankidetzarako hitzarmena sinatu dute

aurrekontuarekin.

Horretaz gain, 20.000 euro aurreikusi dira Euskaltzaindiaren urtemuga ospatzeko antolatu diren jardueretarako.

Bi erakundeek hitzarmena berritzearekin Nafarroako Foru Erkidegoaren berezko hizkuntzetako bat, euskara, normalizatzeko eta haren garapen, azterketa eta ikerketan kolaboratzen jarraitzeko nahia erakutsi dute.

Euskaltzaindiaren sortzailea

Nafarroako Foru Aldundia euskararen garapenerako Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat izan zen, mende bat aurrerago (1918). Harrezkero, Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremana etengabea izan da, eta, horri esker, hainbat ekimen jarri dira martxan, kultur erakundeak sustatu eta lagundu dituenak ere.

Gaur sinatutako hitzarmenak jarraipena ematen die Gobernuak erakunde akademikoari emandako diru-laguntzei, modu horretara Euskaltzaindiak euskararen garapenarekin eta arautegiarekin lotutako gaiak aztertzen eta zabaltzen jarraitu ahal izango duelarik.